



KIROL-FEDERAZIOENTZAKO JARRAIBIDEAK, SEXU-JAZARPEN ETA –ABUSU ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENAREN AURREAN

HELBURU OROKORRA

Alde batetik, kirol-eremua da emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasuna nabarmenena den arloetako bat. Bestalde, adierazi behar da haurrak eta nerabeak eta emakumeak bereziki kalteberak direla sexu-delituen aurrean gizarte-maila guztietan, eta bai kirol-arloan ere.

Horiek horrela, Euskadiko HERRI KIROL Federazioak jarduera-jarraibide batzuk onartu ditu, helburu orokorra dutenak kirol federatuaren jardueraren esparruan gerta daitezkeen sexu-jazarpenera eta -abusua eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzea eta, gertatuz gero, haiei modu eraginkorrean aurre egitea.

APLIKAZIO-EREMUA

Jarraibide hauen aplikazio-eremua hedatzen da kirol-federazioaren jardueretan parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiengana.

KONFIANTZAZKO PERTSONA

Federazioak arduradun tekniko bat jarriko du —nahi eta nahi ez emakumezkoa—, jarraibide hauek betetzeko erantzukizuna izango duena eta haiek dinamizatzeaz eta ondo funtzionatzeaz arduratuko dena. Nahitaez prestakuntza berezia izango du berdintasunaren alorrean eta sexu-abusuaren eta -jazarpeneraren eta sexuan oinarritutako jazarpeneraren alorrean, eta bere lana izango da sexu-abusuaren edo -jazarpeneraren edo sexuan oinarritutako jazarpeneraren salaketa orori konfidentzialtasunez erantzutea eta dagokion jardun-prozedura dinamizatzea. Entitateko konfiantzazko pertsona:

- NEREA SORONDO MARITORENA, KIROLARIA.

JARDUTEKO PROZEDURA

Salaketa aurkeztearekin hasten da prozedura, eta aurkezten duena biktima bera izan daiteke, edo sexu-abusu edo -jazarpenerako edo sexuan oinarritutako jazarpenerako egoera baten berri edo haren susmoa duen beste edozein pertsona.

Konfiantzazko pertsonak, datu objektiboen lehen analisia egin ondoren, aukera hauek ditu:

1. Salaketa izapidetzeko ez onartzea, baldin eta agerikoa bada planteatutakoa ez dela protokolo honen eremuko.



2. Prozedura informal bat hastea.

- a. Egoerak: jokabideak falta arintzat har daitezkeenean, salbu eta biktimak pentsatzen badu komeni dela zuzenean prozedura formalera jotzea; edo, jokabide sexistak izanik ere, ez badira sexu-abusu eta -jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpenaren mailara iristen, baina denboraren poderioz hala izan badaitezke, berriro gertatzen badira.
- b. Helburua: arazoa estraofizialki konpontzea, edo ez bilakatzea sexu-abusu edo -jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen-auzia.
- c. Amaiera: alderdien artean kexa ebazteko akordioa dagoenean.

3. Prozedura formal bat izapidetzen hastea. Horretarako, kasua kirolean gertatzen diren sexu-abusu eta -jazarpenei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak eta Basque Team Fundazioak duten Zure Taldekoak Gara izeneko arreta-zerbitzura bideratzeko aukera izango da.

- a. Egoerak: jokabideak falta astunak edo oso astunak direnean, edo biktimak, prozedura informal batetik igaro ondoren ez duenean konponbiderik lortzen edo salatutako jokabideak behin eta berriz gertatzen direnean.
- b. Helburua: salaketari buruzko ikerketa-prozesu formal bat garatzea.
- c. Amaiera: salaketa artxibatzea edo diziplina-neurriak edo, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzea, bai federazioaren diziplina-araubidean, bai egitateak gertatu diren entitateko lan-harremanen edo boluntariora-harremanen eremuan.

SALAKETAK KOMUNIKATZEKO BIDEAK

Federazioak telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoko bat ditu, sexu-abusu edo -jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen baten biktima den edo egoera horren berri edo susmorik duen edozein pertsonak kexa edo salaketa aurkez dezan, bai eta protokoloari buruzko edozein informazio edo lotutako informazioa eska dezan ere. Federazioko konfiantzazko pertsonen ardurapean egongo dira komunikabide horiek.

- Telefonoa: Email bat bidali eta egunean zehar kontaktatuko dizu.
- Helbide elektronikoa: zurekingaude@herrikirolak.eus

Era berean, Euskal Kirol Federazioen Batasunak bere web-orriko arreta bulego birtualean salaketak egiteko aukera bideratuko du.

- Telefonoa: 946 232 689
- Helbide elektronikoa: ekfb@euskalkirola.eus
- Web: <https://euskalkirola.eus/>



Honez gain, hala nahi duten pertsonak zuzenean jar daitezke harremanetan Eusko Jaurlaritzaren «Zure Taldekoak Gara» zerbitzuarekin (kirolean gertatzen diren sexu-abusu eta -jazarpenei eta sexuan oinarritutako jazarpenei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak eta Basque Team Fundazioak duten arreta eta aholkularitza espezializatuko zerbitzua).

- Telefonoa: 688 671 000
- Helbide elektronikoa: zuretaldekoakgara@euskadi.eus
- Web: <https://www.euskadi.eus/zuretaldekoakgara/>

Hiru aukera horiek daudenez, salatzaileak erabakiko du nahiago duen federazioarekin berarekin, Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin edo administrazio publikoak eskainitako zerbitzuarekin komunikatu.

SEXU-JAZARPEN ETA -ABUSUAK ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA PREBENITZEKO ETA ZEHATZEKO TRESNAK

Hartutako neurriak eraginkorrak izan daitezen, tresna hauek diseinatu dira:

1. Lankidetzeta-hitzarmena, Euskadiko HERRI KIROL Federazioaren eta Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren artekoa.
2. Sexu-jazarpen eta -abusuak eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta zehatzeko araudia.

HEDAPENA

- 1- Informazio-zirkular bat bidaliko zaie federazioaren egitura osatzen duten pertsona guztiei, lurralde-federazioei, federazioa osatzen duten klub eta kirol-elkarte guztiei, eta federazioak eskura dituen duten pertsona federatuen gainerako kontaktuei. Zirkular horretan, jarduteko jarraibide hauek eta eraginkortasunez aplikatzeko lankidetzeta-akordioa onartu direla jakinaraziko da.
- 2- Federazioaren webgunean, leku nabarmen batean, espazio espezifiko bat sartu da, elementu hauek jakinarazteko:
 - Sexu-jazarpena eta -abusua eta sexuan oinarritutako abusua gertatzen denerako jarraibideak, bai eta emakumeen aurkako indarkeria, sexu-abusua eta -jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, detektatzeko eta horrelako egoeretan jarduteko sortzen den dokumentazio guztia ere.
 - Euskal Kirol Federazioen Batasunaren arreta bulego birtualaren esteka.
 - Entitateko konfiantzako pertsonaren identifikazioa eta harekin harremanetan jartzeko modua (telefonoa eta posta elektronikoa).
 - «Zure Taldekoak Gara» zerbitzuaren telefonoa eta informazioa, web esteka txertatuta.